




2024ko Bizkaiko Hondakinen Behatokiaren Urteko
Txostena

Aurkibidea

01 SARRERA	1
02 BIZKAIKO DATUAK	3
2.1. Testuinguru sozioekonomikoa	4
2.2. Bilketa sistemak	6
2.3. Bilketaren bilakaera historikoa	11
2.4. Hondakinen tratamendua	17
2.5. Laburpen orokorra	24
03 UDAL EDUKIONTZIETAKO BILKETA	25
	25
3.1. Udal edukiontzietako bilketa	26
3.2. Edukiontzi bidezko gaikako bilketako ehuneko handiena duten udalerriak	29
3.3. Zatiki bakoitzean edukiontzi bidezko gaikako bilketako ehuneko onenak dituzten udalerriak biztanleko	30
3.4 Azken urtean gaikako bilketako zatiki bakoitzean eboluzio handiena izandako udalerriak	36
3.5. Eskualdeko unitateen arabera laburpena	42
1. Arratia eskualdea	45
1.1. Bilketa sistemak	48
1.2. Bilketen eboluzioa	48
2. Bilbo	54
2.1. Bilketa sistemak	56
2.2. Bilketan eboluzioa	56
3. Busturialdea eskualdea	61
3.1. Bilketa sistemak	64
3.2. Bilketen eboluzioa	64
4. Durangaldea eskualdea	69
4.1. Bilketa sistemak	72
4.2. Bilketen eboluzioa	72
5. Enkarterri eskualdea	78
5.1. Bilketa sistemak	81
5.2. Bilketen eboluzioa	81
6. Ezkerraldea eskualdea	87
6.1. Bilketa sistemak	90

6.2. Bilketen eboluzioa	90
7. Lea-Artibai eskualdea	95
7.1. Bilketa sistemak	98
7.2. Bilketen eboluzioa	98
8. Mungialdea eskualdea	104
8.1. Bilketa sistemak	107
8.2. Bilketen eboluzioa	107
9. Nerbioi-Ibaizabal eskualdea	113
9.1. Bilketa sistemak	116
9.2. Bilketen eboluzioa	116
10. Txorierri eskualdea	122
10.1. Bilketa sistemak	125
10.2. Bilketen eboluzioa	125
11. Uribe kosta eskualdea	130
11.1. Bilketa sistemak	133
11.2. Bilketen eboluzioa	133
04 ONDORIOAK	141



01 SARRERA

Dokumentu honetan, **Bizkaiko Hondakinen Behatokiaren 2024ko Urteko Txostenean**, Bizkaiko Lurralde Historikoan 2024an egindako hondakinen kudeaketari buruzko azterketa xehea egingo da.

Hondakinen Behatoki hau egiteko, Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legean ezarritako irizpideak hartu dira erreferentziazat. Lege hori 2022ko apirilaren 9an argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean, eta urte bereko apirilaren 10ean sartu zen indarrean.

Lehen aipatutako 7/2022 Lege berriaren onarpenarekin, inflexio-puntu bat ezartzen da, ez bakarrik hondakinen sektorean inplikaturako eragileentzat, baita herritarrentzat ere, zeinei erantzukizun handiagoa esleitzen bait zaio kontsumo-ohiturei eta hondakinen kudeaketari dagokienez.

Dokumentu honetan aztertutako kopuruak tokiko eskumeneko hondakinak biltzeko dauden sistemei dagozkie, hala nola, edukiontzietako udal bilketa, garbiguneak, bilbogarbiak, kale-garbiketa eta bilketa pribatuak, besteak beste. Halaber, hondakin horien helmugari eta ondorengo tratamenduari buruzko informazioa ere ematen da.

Konparazio bat aurkeztuko da 2014tik aurrera, zatiki organikoa izan ezik, 2017an hasiko baita aztertzen. Helburua da bildutako hondakin-zatikien bilakaeraren joerak aztertzea, bai Bizkaiko Lurralde Historikoan, bai hura osatzen duten eskualdeetan.



02 BIZKAIKO DATUAK

2.1. Testuinguru sozioekonomikoa

Bizkaiko errealitate sozioekonomikoa zehatz-mehatz ezagutzeak, enpresa-jarduerari, lan-merkatuari, merkataritzari, turismoari eta bilakaera demografikoari buruzko koiunturako adierazleak eskuratzearekin batera, aukera ematen du lurraldean hondakinen sorreran eragiten duten faktoreen azterketa zehatzago eta oinarrituagoa egiteko.

Azterketa hori lurraldearen esparru ekonomikoaren testuinguruan kokatzen da. 2023an, Bizkaia % 1,7ko hazkundea izan zuen Barne Produktu Gordinean (BPG), eta enpleguak ere % 1,7ko hazkundea izan zuen. 2024an, adierazle horiek berriro ere bilakaera positiboa izan dute: BPGa % 2,2 hazi zen, eta enplegua % 1,8 hazi zen, 17.000 lanpostu garbi baino gehiago sortu baitziren. Hobekuntza ekonomiko horrek eragina izan dezake hondakinen sorreran eta herritarren kontsumo-portaeretan.

Bizkaian, 2024an, lehen sektoreak gora egin du, eta % 0,9 hazi da, aurreko ekitaldian izandako beherakadaren ondoren. 2023an % 0,3 hazi zen industria, eta 2024an % 0,9 hazi da. Bestalde, eraikuntzaren sektoreak dezelerazio txiki bat izan du: 2023ko % 2,1etik 2024ko % 1,4ra. Zerbitzuen sektoreak bilakaera positiboa izan du, % 2tik gorako hazkunde iraunkorra izan bait du, eta ekonomiaren eragile nagusietako bat bezala finkatu da. Merkataritza, ostalaritza eta garraioari dagokionez, turismoak garrantzi handia izan du: BPGaren % 5,7 ekarri du, eta enpleguak % 4,1 egin du gora.

Eskariaren ikuspegitik, 2024an, kontsumo pribatua % 2,4 igo zen, eta administrazio publikoen kontsumoa % 2,3. Oro har, azken kontsumoa % 1,9 igo da urte batetik bestera, barne-eskariari eta ingurune ekonomiko hobeari esker.

2024an, ondasunen esportazioek % 5,1eko beherakada izan zuten Euskadin, eta pandemia garaitik lehenengo beherakada izan zen. Atzerakada horrek automobilgintzaren sektorearen narriadura islatzen du, bereziki esanguratsua Bizkaiaarentzat, industria-gune gisa.


Lan-merkatuari dagokionez, 2024an enplegu garbia sortu zen, % 1,8ko igoerarekin, eta 17.136 lanpostu berri gehitu ziren. Enpleguak aurrera egin zuen sektore guztietan: lehen

sektorea % 0,2 hazi zen, industria % 0,7, eraikuntza % 0,6, eta zerbitzuak % 1,9ko igoerarekin nabarmendu ziren.

Heriotza-tasa handitu eta jaiotza-tasek beherakada nabarmena izan duten arren, Bizkaiko biztanleriak % 0,50eko hazkundera izan du 2024. urtean. Hazkunde demografiko hori migrazio-saldo positiboari zor zaio nagusiki, beste herrialde batzuetatik datozen etorkinen harrerak bultzatuta.

Aurretik aipatutako ekitaldiekin batera, ekonomia zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 7/2023 Legea onartzeak, zeinen helburua, ekonomia zirkularraren printzipioak hondakinen oinarritzko legediaren bidez finkatzea bait da, bilketa bereizia indartzea ere ekarriko du. Ahalegin hori, etxeetan ez ezik, zerbitzuen eta saltokien sektorean ere egiten da, kalitate handiko birziklapena ahalbidetzeko eta bigarren mailako lehengaien erabilera sustatzeko.

Tokiko eskumeneko hondakinen esparruan, bilketa bereizi horrek, gainera, berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatze-indizeak areagotzea erraztuko du, eta funtzesko ingurumen, ekonomia eta gizarte-onurak lortzea eta ekonomia zirkularrerako trantsizioa bizkortzea ekarriko du.




1 Ilustrazioa. Bizkaiko eskualdekako mapa

2.2. Bilketa sistemak

Ondoren azaltzen dira Bizkaiak dituen bilketa-sistemak:

- ✓ **Baterako Bilketa:** Bizkaiko baterako bilketa honako hauek osatzen dute, batez ere: kalean dagoen errefusa biltzeko udal edukiontzia, garbigune eta bilbogarbien hondakinen nahasketa edukiontzia, bai eta edukiontzietan sartu gabeko beste bilketa batzuek ere, hala nola kale-garbiketa eta hondartzak, edo sortzaile handiek (aireportuak, kirol-portuek, merkatuek eta merkataritza zentruak) modu pribatuan bildutako merkataritza hondakinak. Hondakin horiek balorizazio energetikorako eta tratamendu mekaniko biologikorako erabiltzen dira batez ere. Gaur egun balorizatu ezin diren hondakinak bakarrik ezabatzen dira zuzenean; hondakin horiek guztizkoaren %1,6 baino gutxiago dira. Baterako bilketak, bilketa osoaren %51,95 da, hau da, 0,57 puntu portzental jaitsi da. Beraz, 2023. urtearekin alderatuta %1,09 murriztu da.
- ✓ **Gaikako bilketa:** Bizkaiko gaikako bilketa, batez ere, honako hauek osatzen dute: Udal edukiontzietan, kalean, zatiki desberdinetarako bildutako hondakinak, garbigune eta Bilbogarbi finko eta mugikorretan bereizita bildutakoak, eta edukiontzietan sartu gabeko beste bilketa batzuk, hala nola merkataritza sektoreko atez ateko bilketa pribatuak. 2023. eta 2024. urteen artean, gaikako bilketak gorakada izan du Bizkaian, %47,48tik %48,05era. Igoera horrek ehuneko 0,57 puntuko hobekuntza ekarri du, hau da, % 1,2ko hazkunde erlatiboa izan da aurreko urtearekiko.



2 Irudia. Bilketa sistema bakoitzaren ehunekoa (% pisan)

Jarraian, 2024. urtean Bizkaiko Lurralde Historikoan sortutako tokiko eskumeneko hondakinen (BJK) guztizkoaren taula eta 2023. urteko konparazioa jasotzen dira.

1.Taula. Hondakinen sorkuntza 2023-2024 (tonatan)

		BIZKAIA 2023	% pisuan	BIZKAIA 2024	% pisuan	aldakuntza
EH	Masako bilketa	275.173	%55,56	278.182	%54,62	%1,09
	Biohondakina	17.904	%3,62	18.700	%3,67	%4,45
	Papera eta kartoia	21.209	%4,28	22.169	%4,35	%4,53
	Beira	16.003	%3,23	16.092	%3,16	%0,56
	Ontzi arinak	20.552	%4,15	21.080	%4,14	%2,57
	Plastikoak ontziak ez direnak	1.154	%0,23	1.200	%0,24	%3,99
	Metalak ontziak ez direnak	294	%0,06	297	%0,06	%1,02
	Hondakin arriskutsuak	425	%0,09	438	%0,09	%3,06
	Denetariakoak	15.976	%3,23	17.906	%3,52	%12,08
	Tamaina handikoak	19.456	%3,93	19.940	%3,92	%2,49
	Eraikuntza hondakinak	107.088	%21,62	113.285	%22,24	%5,79
	Gaikako bilketa	220.061	%44,44	231.107	%45,38	%5,02
	EH (etxeko hondakinak) GUZTIRA	495.234	%100,00	509.289	%100,00	%2,84
MH	Masako bilketa	48.204	%39,96	51.794	%41,16	%7,45
	Biohondakina	957	%0,79	1.010	%0,80	%5,54
	Papera eta kartoia	34.774	%28,83	36.252	%28,81	%4,25
	Beira	13.379	%11,09	13.442	%10,68	%0,47
	Ontzi arinak	1.082	%0,90	1.103	%0,88	%1,94
	Plastikoak ontziak ez direnak	565	%0,47	632	%0,50	%11,86
	Metalak ontziak ez direnak	155	%0,13	59	%0,05	%-61,94
	Hondakin arriskutsuak	19	%0,02	14	%0,01	%-26,32
	Denetariakoak	20.695	%17,16	20.712	%16,46	%0,08
	Tamaina handikoak	789	%0,65	815	%0,65	%3,30
	Gaikako bilketa	72.415	%60,04	74.039	%58,84	%2,24
	MH (merkataritzako hondakinak)GUZTIRA	120.619	%100,00	125.833	%100,00	%4,32
TEH GUZTIRA	MASAKO BILKETA GUZTIRA HH	323.377	%52,52	329.976	%51,95	%2,04
	Biohondakina	18.861	%3,06	19.710	%3,10	%4,50
	Papera eta kartoia	55.983	%9,09	58.421	%9,20	%4,35
	Beira	29.382	%4,77	29.534	%4,65	%0,52
	Ontzi arinak	21.634	%3,51	22.183	%3,49	%2,54
	Plastikoak ontziak ez direnak	1.719	%0,28	1.832	%0,29	%6,57
	Metalak ontziak ez direnak	449	%0,07	356	%0,06	%-20,71
	Hondakin arriskutsuak	444	%0,07	452	%0,07	%1,80
	Denetariakoak	36.671	%5,95	38.618	%6,08	%5,31
	Tamaina handikoak	20.245	%3,29	20.755	%3,27	%2,52
	Eraikuntza hondakinak	107.088	%17,39	113.285	%17,84	%5,79
	Gaikako Bilketa Guztira	292.476	%47,48	305.146	%48,05	%4,33
	Hondakinak Guztira	615.853	%100	635.123	%100	%3,13
	Biztante kopurua	1.154.306		1.160.133		%0,50
	Kg/biz/urtea	533,53		547,46		%2,61

2024an, Bizkaiko Lurralde Historikoan guztira 635.123 tona hondakin sortu ziren, hau da,

aurreko urtean baino % 3,13 gehiago, orduan 615.853 tona sortu baitziren. Goranzko joera horrek hautsi egiten du aurreko ekitaldietan behatutako beheranzko bilakaera, eta hondakin gehiago sortzen dela islatzen du.

Biztanleriari dagokionez, Bizkaiak ere hazkunde demografiko txikia izan zuen: 2023an 1.154.306 biztanle izatetik 2024an 1.160.133 izatera igaro zen, hau da, % 0,50eko hazkundera izan zuen. Hala eta guztiz ere, hondakinen sorreraren hazkundera populazioaren hazkundera baino askoz handiagoa izan da, eta horrek esan nahi du per capita sorkuntzaren benetako hazkundera gertatu dela.

Hala, Bizkaian biztanleko sortutako hondakinak urteko 533,53 kg izatetik 2023an 547,46 kg/biz/urte izatera pasatu ziren 2024an; horrek esan nahi du % 2,61 igo dela urtebetean. Datu horrek adierazten du biztanle bakoitzak, batez beste, aurreko urtean baino 13,93 kg hondakin gehiago sortu zituela.

Hondakin-motaren arabera:

Tokiko Eskumeneko Hondakinaren baterako bilketa: Balio absolutuetan ere igoera txiki bat izan zuen, baina txikiagoa: 2023an 323.377 tona jaso ziren, eta 2024an 329.976 tona, hau da, % 2,04ko igoera. Beraz, termino erlatiboetan, zatiki horrek pisua galdu zuen sortutako hondakinen multzoan, 2023an % 52,52 izatetik 2024an % 51,95 izatera pasatu baitzen, eta horrek % 1,09ko murrizketa adierazten du aurreko urtearekin alderatuta.

Bestalde, Tokiko Eskumeneko Hondakinen gaikako bilketa 292.476 tonatik 305.146 tonara igo zen 2023an, hau da, % 4,33ko hazkundera izan zuen. Termino erlatiboetan, % 47,48tik % 48,05era pasatu zen, eta % 1,20ko hobekuntza izan zuen aurreko urtearekin alderatuta. Aurrerapen txiki baina positiboa izan zen jatorriko bereizketa handiagorantz.

Gaikako bilketaren barruan, biohondakinen zatikia % 3,10 da, eta horrek agerian uzten du urte batetik bestera % 4,5eko hazkundera izan dela. Beiraren zatikiak % 4,65eko ekarpena egin du, eta % 0,52ko igoera izan du. Ontzi arinek gaikako bilketaren % 3,49 osatzen dute, eta % 2,54 hazi dira. Tamaina handiko hondakinek, berriz, % 3,27 egin dute gora, eta % 2,52ko aldaketa positiboa izan da aurreko aldiarekin alderatuta. Emaiza horiek adierazten dute bilketa-sistemen eraginkortasuna hobetu dela eta hondakinak behar bezala bereizteko herritarren parte-hartzea handitu dela.

2023ko datuekin alderatuta, hauek dira gaikako bilketan pisu gehien eta emaitza onenak lortu dituzten zatikiak: eraikuntzako hondakinak (% 5,79), paper-kartoikoak (% 4,35) eta zabor-hondakinak (ehuna eta zura, batez ere) % 5,31 hazkuntzarekin.

Bestalde, 2023. urtearekin alderatuta murrizketa izan duen zatiki bakarra ontziak ez diren metalak dira, % 20,71ko murrizketarekin.


GAINERAKOEN ZATIKIAREN KARAKTERIZAZIOAK

2024. urtean zehar errefusa karakterizatzeko hainbat laginketa egin dira Bizkaiko Lurralde Historikoan. Ondorengo grafikoan ageri dira lortutako batez besteko datuak, hondakin-motaren eta bilketa- edo tratamendu-prozesuetarako helmuga egokiaren arabera sailkatuta.

Egindako azterketaren arabera, sortutako hondakinen % 38 zatiki organikoarena da, eta, kondizio ezin hobeetan, bio-hondakinetarako edukiontzi marroira bota behar zen. Bigarren talde adierazgarriena, % 28rekin, "beste batzuk" kategoriari dagokio. Katēgoria horrek gaikako bilketa jakin batean sartzen ez diren hondakinak edo osaera mistoa dutenak biltzen ditu.

Aztertutako hondakin guztien % 12 material berrerabilgarriak dira, paperaren eta kartoiaeren zatikiaren proportzio bera. Ontzi arinak edukiontzi horira bota behar izan ziren, eta % 4 dira. Beira, berriz, iglu berdez kudeatzen da, eta % 6ra iristen da.

Lortutako informazioak hondar-zatikiaren konposizioaren batez bestekoa islatzen du 2024an zehar, eta horrek erraztu egiten du inpropioen presentzia ebaluatzea eta jatorriko bereizketa-ohituretan izan daitezkeen hobekuntzak hautematea.




2 Irudia. Gainerako zatikiaren karakterizazioen batez besteko ehunekoa Bizkaian 2024

2.3. Bilketaren bilakaera historikoa


Atal honetan, etxeko eta merkataritzako hondakinen bilketa osoaren bilakaera grafikoki irudikatzen da, baita hura osatzen duten zatikiena ere. Seriearen hasiera urtea 2014. urtea da.

EUSTATEk, EINK, ECOEMBESeK eta ECOVIDRIOK argitaratutako informazioan oinarrituz, Euskal Autonomia Erkidegoko konparazio-puntua lortzen dugu kg/biz/urte proportzioan. Bilakaerari buruzko grafiko bakoitzean, kontsultatutako estatistika-erakunde bakoitzak argitaratutako azken datuak erakusten dira. Esan behar da, batzuetan, txosten hau egiteko unean dauden azken datuak 2018ko datuak direla. Biohondakinen kasuan, ez dago Bizkaiko Hondakinen Behatokiak bildutakoen pareko Estatuko edo EAeko daturik, beraz, ez dago konparazio-daturik.


Behatokiak biohondakinen bilketa bereizia kontabilizatzen du 2014tik, baina ez ditu udalerri bakoitzeko bilketa xehatuaren zifrak aurkezten 2017ra arte. Une horretatik aurrera, bosgarren edukiontziaaren hedapen handiagoa gertatzen da Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietan.




3 Irudia. Hiri-hondakinen bilketa osoaren eboluzioa (kg) Bizkaia 2014-2024. Iturriak: Behatokia, EIN eta Eustat




4 Irudia. Masako bilketaren eboluzioa. Bizkaia 2014-2024. Iturriak: Behatokia, EIN eta Eustat




5 Irudia. Biohondakin bilketaren eboluzioa. Bizkaia 2017-2024. Iturriak: Behatokia eta Eustat




6 Irudia. Paper eta kartoi bilketaren eboluzioa. Bizkaia 2014-2024. Iturriak: Behatokia, Ecoembes eta Eustat




7 Irudia. Beira bilketaren eboluzioa. Bizkaia 2014-2024. Iturriak: Behatokia, Eustat eta Ecovidrio




8 Irudia. Ontzi arinen bilketaren eboluzioa. Bizkaia 2014-2024. Iturriak: Behatokia, Ecoembes eta Eustat



9 Irudia. Hondakin arriskutsuen bilketaren eboluzioa. Bizkaia 2014-2024. Iturriak: Behatokia eta Eustat



10 Irudia. Denetarikoen bilketaren eboluzioa. Bizkaia 2014-2024. Iturriak: Behatokia eta Eustat



11 Irudia. Tamaina handiko hondakinen bilketaren eboluzioa. Bizkaia 2014-2024. Iturriak: Behatokia, Eustat

2.4. Hondakinen tratamendua

Atal honetan, 2024an bildutako hondakin-fluxuak zer tratamendura bideratu diren deskribatzen da. Hauek dira helmugak:

- Berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzea
- Eraikuntza-hondakinen berreskuratzea
- Konpost-egitea
- Balorizazio energetikoa
- Aurretratatuak deuseztatzea
- Zuzeneko deuseztatzea edo isurketa gordina

Nabarmentzekoa da 2024an tratatutako 599.124 tona (2. taula ikusi) hondakinetatik 178.046 tona (% 29,72) berrerabilpenerako eta birziklapenerako prestatzeko erabili zirela, 113.285 tona (% 18,91) eraikuntzako hondakinak berreskuratzeke eta 19.710 tona (% 3,29) konpostajerako. Oro har, berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzea eta eraikuntza-hondakina berreskuratzea tratatutako hondakin guztien % 48,62 dira.

Bestalde, hondakinen pisuaren % 32,92ren helburua balorizazio energetikoa da, guztira 197.218 tona, eta, hala, zabortegean ezabatzea saihesten da.


2024an, tratatutako hondakin guztien % 15,17 (90.864 t) utzi zen zabortegean; 2023an, berriz, % 15,57. Horrek ehuneko 0,40 puntuko murrizketa erabatekoa dakar. Murrizketa erlatiboa aztertuta, % 2,57ko hobekuntza izan da zabortegean uztearen tasan, aurreko urtearekin alderatuta; horrek erakusten du hondakinen kudeaketa iraunkorrean aurrera egin dela.

Hondakin hori honela banatzen da:

- 81.350 Tona aurrez tratatutako isuria. TMB plantaren azpiproduktuak dira (erregai solido berreskuratua eta bioegonkortua), geldotu direnak eta beren bolumenagatik energetikoki balorizatu ezin izan direnak.
- 9.514 Tona tratatu gabeko isurketa. Kale-garbiketako eta hondartzetako hondakinei dagokiena, bai eta garbiguneen sareko errefusaren zatikiari dagokiona ere. 646/2020 Errege Dekretuak, hondakinak zabortegean utzita ezabatzea arauten duenak, ezartzen du hondakinak tratatu egin behar direla


ezabatu aurretik, salbu eta haien tratamendua teknikoki bidegarria ez bada; beraz, salbuepen hori jasotzen du.

Horrenbestez, 2024an, edukiontzietan sartutako hondakinei dagokionez, isurketaren aurreko tratamenduaren helburua lortu da.



12 Irudia. Hondakinen helburua eta tratamendua (tona). Bizkaia 2024. Iturria: Behatokia

HONDAKINEN HELBURUA BIZKAIA 2024



13 Irudia. Hondakinen helburu eta tratamendua (portzentaia). Bizkaia 2024. Iturria: Behatokia

Bizkaian azken ekitaldietan bildutako hondakinen azken norakoa Behatokian argitaratutako serie historikoan kontsulta daiteke. Erabilitako urteko erregistro-metodologikoari esker, azken ekitaldietan Bizkaian bildutako hondakinak zein tratamendutara bideratzen diren jakin daiteke. Hurrengo tauletan ikus daiteke tratamenduek 2016tik gaur egunerarte izan duten bilakaera.


2 Taula. Hondakinen eboluzio, helburu eta tratamendua (tonatan). 2016-2024 urteak

HIRI-HONDAKINEN HELBURUA (t)		2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Gaikako Bilketa Birziklatzeko		240.988	274.226	283.430	288.229	268.821	285.365	290.140	273.615	285.437
Biohondakinen Bilketa		6.613	8.139	10.729	12.993	13.737	17.586	19.697	18.861	19.710
TMB	Gaikako Bereizketa	5.811	8.960	8.520	7.944	6.642	6.587	6.378	6.613	5.895
	Balorizazio Energetikoa	44.127	54.245	38.124	63.626	67.340	57.344	68.567	65.203	51.101
	Deuseztapena	36.710	78.488	93.131	71.918	64.888	72.931	59.537	70.501	81.350
	Tratatzeke Dauden Sarrerak	1.589	1.605	1.965	1.100	1.089	1.100	1.090	2.553	2.768
	Prozesu-Galerak	24.841	34.579	37.467	33.942	38.395	41.276	37.911	33.517	33.231
Balorizazio Energetikoa		170.838	156.893	161.637	153.597	145.170	149.047	145.635	125.219	146.117
Deuseztapena		73.715	20.594	11.571	14.814	15.181	11.729	10.618	19.771	9.514
Guztira		605.232	637.729	646.574	648.164	621.263	642.965	639.573	615.853	635.123

HIRI-HONDAKINEN TRATAMENDUA (t)		2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Birziklatzeko/Berrerabiltzeko Prestatzea		170.021	190.112	199.868	210.584	197.937	198.095	195.281	173.140	178.047
Eraikuntza-hondakinen berreskuratzea		76.778	93.074	92.082	85.589	77.526	93.857	101.237	107.088	113.285
Konpost-egitea		6.613	8.139	10.729	12.993	13.737	17.586	19.697	18.861	19.710
Balorizazio Energetikoa		214.965	211.138	199.761	217.224	212.510	206.391	214.202	190.422	197.218
Aurretratatukoaren Deuseztapena		36.710	78.488	93.131	71.918	64.888	72.931	59.537	70.501	81.350
Tratatu Gabeko Isuria		73.715	20.594	11.571	14.814	15.181	11.729	10.618	19.771	9.514
Guztira		578.802	601.545	607.142	613.122	581.779	600.589	600.572	579.783	599.124

Tratamendurako zain dauden sarrerak		1.589	1.605	1.965	1.100	1.089	1.100	1.090	2.553	2.768
Prozesuaren galerak		24.841	34.579	37.467	33.942	38.395	41.276	37.911	33.517	33.231
		605.232	637.729	646.574	648.164	621.263	642.965	639.573	615.853	635.123

Hurrengo irudian, Bizkaian hondakinen tratamenduak azken urteotan izan duen bilakaera isladatzen da, ehunekotan. Hori egiteko, tratamenduaren hezetasun-galerak eta ekitaldi bakoitzaren amaieran tratatu gabe dauden hondakinen sarrerek kendu dira.



14 Irudia. HH helburu eta tratamenduaren eboluzioa. Bizkaia 2015-2024. Iturria: Behatokia

2024an, aldaketa txiki batzuk izan dira hondakinen tratamenduaren ehunekoetan, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Eraikuntzako hondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko eta berreskuratzeko prestatze-tasa globala % 48,33tik % 48,63ra igo da 2024an, eta horrek neurrizko aurrerapena dakar balorizazio materialeko praktketan.

Konpostajeari dagokionez, joera egonkorra izan da, % 3,25etik % 3,29ra pixka bat hobetu baita. Balorizazio energetikoak ere igoera txiki bat izan du, 2023an % 32,84 izatetik 2024an % 32,92 izatera igaro baita, eta hondakin ez-birziklagarriak kudeatzeko bide osagarri gisa duen rola sendotu du.

Bestalde, ezabatu beharreko hondakinen (zabortegia) proportzioa jaitsi egin da, % 15,57tik % 15,17ra. Horrek esan nahi du tratamendu-sistemaren eraginkortasuna pixka bat hobetu dela eta azken xedapenarekiko mendekotasuna txikiagoa dela.


Nabarmentzekoa da biohondakinen zatikia konpostatzeko prozesuak gero eta bilakaera handiagoa izan duela. Izan ere, Bizkaiko udalerri guztietan bosgarren edukiontzia ezarri da, eta udalerri batzuetan, aldi berean, etxeko konpostajea eta konpostaje komunitarioa (FOGO) egiten dira.

3 Taula. Hondakin tratamenduaren eboluzioa (portzentaia). 2016-2024 urteak

HIRI-HONDAKINEN TRATAMENDUA (t)	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
BIRZIKLATZEKO/BERRERABILTZEKO PRESTATZEA	%29,37	%31,60	%32,92	%34,35	%34,02	%32,98	%32,52	%29,86	%29,72%
ERAIKUNTZA-HONDAKINEN BERRESKURATZEA	%13,26	%15,47	%15,17	%13,96	%13,33	%15,63	%16,86	%18,47	%18,91
KONPOST-EGITEA	%1,14	%1,35	%1,77	%2,12	%2,36	%2,93	%3,28	%3,25	%3,29
BALORIZAZIO ENERGETIKOA	%37,14	%35,10	%32,90	%35,43	%36,53	%34,36	%35,67	%32,84	%32,92
DEUSEZTAPENA	%19,08	%16,47	%17,25	%14,15	%13,76	%14,10	%11,68	%15,57	%15,17
GUZTIRA	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100

2.5. Laburpen orokorra

Guztira sortutakoa: 635.123 tona



Helburua: 635.123 tona

Tratamendua: 599.124 tona



Beste batzuk:



03 UDAL EDUKIONTZIETAKO BILKETA

3.1. Udal edukiontzietako bilketa

Atal honetan, Bizkaiko udalerrietako **edukiontzietako bilketei** buruzko informazioa kontsulta daiteke. 2024. urtean gaikako bilketan ratio onenak lortu dituzten udalerriak nabarmentzen dira, bai eta zatiki bakoitzeko emaitzarik aipagarrienak ere. Halaber, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, bilakaerarik onena izan duten udalerriak identifikatzen dira. Aurrerapen nabarmenak egin dira jatorrizko bereizketa hobetzeari eta bilketa-sistemaren eraginkortasunari dagokienez.

Edukiontzietan sartutako Bizkaiko gaikako bilketaren datua, maila erantsian, %27,01koa da 2024an.

Azpimarratzekoa da hemen adierazitako datuak kaleko edukiontzietan jasotakoak direla soilik, garbiguneetan eta bilbogarbietan egindako bilketak edo bilketa pribatuak kontuan hartu gabe.

Ondoko taulan, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri bakoitzean zatiki bakoitzerako sortutako hondakinak erakusten dira. Zenbait kasutan, mankomunitateko udalerrien artean modu uniformearen (biztanleriaren arabera) banatutako datuak dira.

4 Taula. Udalerrri bakoitzak zatiki bakoitzeko edukiontzi bidez bildutako hondakinak (kilogramoak). 2024. urtea

UDALERRIA	ESKUALDEA	MASAKO BILKETA	PAPERA-KARTOIA	BEIRA	TAMAINA HANDIKOAK	ONTZIAK	BERRERABILERA	BIOHONDAKINA	GUZTIRA EH
		Kg	Kg	Kg	Kg	Kg	Kg	Kg	Kg
ABADIÑO	Durangaldea	2.075.683	260.733	193.618	64.135	174.759	24.856	48.946	2.842.728
ABANTO-ZIERBENA	Ezkerraldea	2.756.000	220.642	187.842	173.140	141.142	34.595	53.650	3.567.012
AJANGIZ	Busturialdea	144.760	8.740	8.537	5.200	20.823	0	4.320	192.380
ALONSOTEGI	Enkarterri	896.940	89.863	57.345	45.120	53.118	9.280	40.520	1.192.186
AMOREBIETA-ETXANO	Durangaldea	5.283.620	529.247	474.467	211.160	408.376	82.035	133.668	7.122.573
AMOROTO	Lea-Artibai	81.429	13.566	19.359	3.714	22.312	2.814	28.821	172.014
ARAKALDO	Nerbioi-Ibaizabal	19.578	5.742	1.472	260	5.697	1.607	0	34.356
ARANTZAZU	Arratia	116.195	15.043	12.062	5.398	9.958	2.862	3.185	164.703
ARTZENTALES	Enkarterri	221.948	18.979	14.925	2.045	12.749	2.916	4.658	278.220
AREATZA	Arratia	379.551	49.139	44.127	17.632	27.545	4.874	10.403	533.270
ARRANKUDIAGA	Nerbioi-Ibaizabal	319.294	47.768	31.489	6.611	22.712	4.284	11.867	444.025
ARRATZU	Busturialdea	115.084	7.562	15.967	5.535	21.237	2.476	635	168.496
ARRIETA	Mungialdea	169.299	29.162	19.805	4.015	19.394	2.584	565	244.824
ARRIGORRIAGA	Nerbioi-Ibaizabal	2.762.664	372.904	234.640	127.060	177.215	54.717	139.004	3.868.204
ARTEA	Arratia	220.594	28.559	23.376	10.248	17.705	3.794	6.046	310.322
ATXONDO	Durangaldea	363.553	45.667	72.716	11.233	28.981	4.615	8.573	535.337
AULESTI	Lea-Artibai	132.890	22.140	18.369	6.061	20.999	2.458	47.035	249.952
BAKIO	Mungialdea	1.176.840	125.788	180.385	37.600	102.110	17.675	30.460	1.670.858
BALMASEDA	Enkarterri	2.301.803	196.833	152.371	90.000	88.411	23.705	48.306	2.901.429
BARAKALDO	Ezkerraldea	26.110.370	1.723.340	2.061.753	784.100	1.184.728	375.700	481.860	32.721.851
BARRIKA	Uribekosta	642.140	47.433	65.408	22.840	53.971	15.685	20.100	867.577
BASAURI	Nerbioi-Ibaizabal	10.941.650	1.154.091	875.477	516.500	577.354	134.541	490.020	14.689.632
BEDIA	Arratia	329.416	42.648	23.474	15.303	21.119	4.594	9.029	445.582
BERANGO	Uribekosta	2.317.600	234.165	154.290	36.540	161.447	41.106	54.720	2.999.867
BERMEO	Busturialdea	4.247.410	386.706	510.635	191.150	335.090	51.590	105.090	5.827.671
BERRIATUA	Lea-Artibai	356.725	79.686	32.503	10.770	62.144	3.844	67.915	613.587
BERRIZ	Durangaldea	1.281.510	121.458	98.169	55.720	102.281	15.715	26.120	1.700.973
BILBAO	Bilbo-Bilbao	86.187.280	10.794.490	9.232.240	2.832.380	7.372.840	1.336.447	3.756.220	121.511.897
BUSTURIA	Busturialdea	531.219	31.060	45.701	23.015	44.849	9.016	9.985	694.844
DERIO	Txorierrri	2.321.748	326.979	155.401	84.902	150.964	38.449	31.677	3.110.120
DIMA	Arratia	443.842	57.462	45.245	20.619	34.685	5.620	12.165	619.638
DURANGO	Durangaldea	6.415.520	774.233	828.246	212.000	582.001	120.200	324.040	9.256.241
EA	Busturialdea	215.650	32.840	49.052	12.630	30.097	1.570	0	341.839
ELANTXOBE	Busturialdea	97.015	6.375	7.688	4.666	13.023	1.524	535	130.827
ELORRIO	Durangaldea	2.048.724	244.702	202.404	60.191	183.352	38.909	45.936	2.824.218
ERANDIO	Txorierrri	7.946.360	580.923	511.427	392.780	371.130	89.575	67.830	9.960.025
EREÑO	Busturialdea	78.741	4.968	17.155	3.637	8.764	1.605	417	115.286
ERMUA	Durangaldea	2.975.483	547.362	353.352	45.449	306.046	50.894	648.092	4.926.678
ERRIGOITI	Busturialdea	131.000	6.920	12.711	1.300	10.892	1.330	0	164.153
ETXEBARRI, ANTEIGLESIA	Nerbioi-Ibaizabal	2.521.999	402.088	231.239	115.600	179.854	43.762	100.649	3.595.192
ETXEBARRIA	Lea-Artibai	222.051	35.484	24.615	7.250	39.601	2.762	39.927	371.690
FORUA	Busturialdea	286.041	12.225	23.806	10.212	20.117	2.125	4.771	359.296
FRUIZ	Mungialdea	168.422	29.011	8.727	3.994	15.541	3.842	562	230.099
GALDAKAO	Nerbioi-Ibaizabal	5.291.643	493.271	526.609	308.148	357.626	85.629	103.065	7.165.991
GALDAMES	Enkarterri	247.580	21.171	19.860	2.281	18.660	1.836	5.196	316.585
GAMIZ-FIKA	Mungialdea	403.803	69.556	25.911	9.576	28.691	7.788	1.348	546.673
GARAI	Durangaldea	91.693	11.518	14.318	2.833	10.255	2.098	2.162	134.876
GATIKA	Mungialdea	477.487	82.249	28.513	11.323	34.107	7.449	1.594	642.723
GAUTEGIZ-ARTEAGA	Busturialdea	244.067	16.037	30.731	11.739	27.807	2.170	1.347	333.897
GERNIKA-LUMO	Busturialdea	4.138.475	517.006	512.485	189.310	321.459	71.165	133.600	5.883.500
GETXO	Uribekosta	17.879.400	2.379.774	2.082.503	572.300	1.650.400	374.006	661.970	25.600.353
GIZABURUAGA	Lea-Artibai	40.714	6.783	7.070	1.857	7.015	1.770	14.410	79.620
GORDEXOLA	Enkarterri	515.968	44.122	40.020	4.753	36.014	6.617	10.828	658.322
GORLIZ	Uribekosta	2.117.320	184.190	190.379	119.780	152.063	38.464	73.220	2.875.416
GÜEÑES	Enkarterri	2.041.858	174.605	136.564	18.811	100.131	19.678	42.851	2.534.497
IBARRANGELU	Busturialdea	189.027	12.421	45.732	9.091	21.938	2.783	1.043	282.035
IGORRE	Arratia	1.276.966	165.324	112.337	59.321	83.895	17.297	34.999	1.750.138
ISPASTER	Lea-Artibai	181.331	25.518	24.997	3.880	24.280	3.020	19.032	282.057
IURRETA	Durangaldea	1.038.378	130.434	86.487	32.084	105.603	15.659	24.485	1.433.130
IZURTZA	Durangaldea	61.665	7.746	12.966	1.905	6.855	3.690	1.454	96.280
KARRANTZA HARANA	Enkarterri	817.527	69.909	50.725	7.532	46.758	7.185	17.157	1.016.792
KORTEZUBI	Busturialdea	123.423	8.110	25.015	5.936	16.418	1.870	681	181.453

UDALERRIA	ESKUALDEA	MASAKO BILKETA	PAPERA-KARTOIA	BEIRA	TAMAINA HANDIKOAK	ONTZIAK	BERRERABILERA	BIOHONDAKINA	GUZTIRA EH
		Kg	Kg	Kg	Kg	Kg	Kg	Kg	Kg
LANESTOSA	Enkarterri	74.184	6.344	6.926	683	6.708	920	1.557	97.322
LARRABETZU	Txorierr	581.286	87.574	65.005	24.246	59.486	13.979	17.191	848.767
LAUKIZ	Mungialdea	364.036	62.707	20.411	8.633	22.151	7.197	1.215	486.349
LEIOA	Uribekosta	7.775.940	1.024.626	702.079	246.200	557.641	124.620	216.600	10.647.706
LEKEITIO	Lea-Artibai	1.678.546	380.814	319.704	65.880	243.803	51.507	243.177	2.983.431
LEMOA	Arratia	1.057.552	136.917	74.656	49.128	65.131	10.228	28.985	1.422.597
LEMOIZ	Uribekosta	434.520	40.941	61.486	13.280	37.804	10.258	11.980	610.269
LEZAMA	Txorierr	640.688	85.096	53.777	29.126	50.660	14.645	20.516	894.508
LOIU	Txorierr	1.440.909	152.326	81.909	27.941	54.202	16.160	20.657	1.794.104
MALLABIA	Durungaldea	587.864	111.915	38.483	1.364	21.697	3.180	88.122	852.625
MAÑARIA	Durungaldea	142.365	17.883	14.464	4.399	11.289	3.048	3.357	196.805
MARKINA-XEMEIN	Lea-Artibai	1.017.891	230.731	144.492	33.630	122.048	32.509	180.346	1.761.645
MARURI-JATABE	Mungialdea	313.744	54.043	29.734	7.440	26.859	6.827	1.047	439.694
MENDATA	Busturialdea	105.633	6.941	17.967	5.080	18.208	1.504	583	155.917
MENDEXA	Lea-Artibai	87.629	14.599	34.241	3.996	20.000	2.393	31.015	193.874
MEÑAKA	Mungialdea	224.270	38.631	7.668	5.318	12.823	3.787	749	293.247
MORGA	Busturialdea	139.620	6.965	14.254	4.160	9.681	785	0	175.465
MUNDAKA	Busturialdea	744.855	47.386	88.238	17.526	45.405	11.540	7.142	962.091
MUNGIA	Mungialdea	5.071.260	576.966	398.132	136.100	335.927	97.891	56.260	6.672.536
MUNITIBAR-ARBATZEGI	Lea-Artibai	96.309	16.046	15.607	4.392	20.993	2.077	34.088	189.511
MURUETA	Busturialdea	156.210	2.100	20.942	6.350	10.649	915	1.100	198.266
MUSKIZ	Ezkerraldea	2.683.520	145.470	125.239	117.500	96.111	20.535	0	3.188.375
MUXIKA	Busturialdea	429.480	28.221	47.922	20.656	44.327	3.644	2.369	576.619
NABARNIZ	Busturialdea	58.550	5.649	10.564	140	7.514	1.080	1.940	85.437
ONDARROA	Lea-Artibai	1.565.340	299.573	240.476	89.510	186.764	51.443	311.401	2.744.506
ORDUÑA	Nerbioi-Ibaizabal	1.149.276	120.181	109.011	26.130	77.219	14.015	31.474	1.527.306
OROZKO	Nerbioi-Ibaizabal	619.908	68.083	69.848	19.840	52.511	9.646	19.319	859.155
ORTUELLA	Ezkerraldea	2.368.600	111.365	146.851	155.820	127.925	34.900	54.540	3.000.001
OTXANDIO	Durungaldea	369.866	41.580	44.333	19.785	38.020	5.395	0	518.978
PLENTZIA	Uribekosta	1.354.860	134.429	109.260	20.500	86.656	26.344	26.320	1.758.369
PORTUGALETE	Ezkerraldea	10.418.890	1.258.880	1.047.395	447.380	898.397	198.740	417.390	14.687.072
SANTURTZI	Ezkerraldea	11.472.500	737.740	821.805	294.320	616.232	170.760	281.660	14.395.017
SESTAO	Ezkerraldea	6.607.420	651.228	550.670	397.220	351.320	93.310	310.161	8.961.329
SONDIKA	Txorierr	1.504.553	191.399	149.468	54.331	82.876	23.340	31.958	2.037.925
SOPELANA	Uribekosta	3.415.080	457.489	331.165	114.600	304.581	79.893	310.800	5.013.608
SOPUERTA	Enkarterri	833.812	71.301	37.234	7.682	45.424	9.167	17.499	1.022.119
SUKARRIETA	Busturialdea	131.135	14.528	32.837	1.565	11.923	2.810	1.259	196.056
TRUCIOS-TURTZIOZ	Enkarterri	155.303	13.280	11.762	1.431	9.700	2.066	3.259	196.802
UBIDE	Arratia	48.365	6.262	6.009	2.247	4.149	1.453	1.326	69.810
UGAO-MIRABALLES	Nerbioi-Ibaizabal	966.169	113.627	105.229	54.620	68.926	23.381	52.609	1.384.561
URDULIZ	Uribekosta	1.665.740	174.881	174.734	27.100	132.071	37.210	57.700	2.269.436
USÁNSOLO	Nerbioi-Ibaizabal	2.197.237	204.820	218.663	127.952	148.496	35.556	42.795	2.975.519
VALLE DE TRAPAGA	Ezkerraldea	3.521.900	239.519	311.251	145.600	187.021	37.945	70.720	4.513.956
ZALDIBAR	Durungaldea	811.559	101.942	69.922	25.076	65.647	10.181	19.137	1.103.464
ZALLA	Enkarterri	2.507.768	214.446	150.726	24.323	117.315	29.380	52.629	3.096.585
ZAMUDIO	Txorierr	1.996.738	397.064	114.128	39.253	135.710	18.137	159.819	2.860.848
ZARATAMO	Nerbioi-Ibaizabal	565.716	51.597	25.276	18.810	22.160	9.239	6.509	699.308
ZEANURI	Arratia	368.639	47.726	44.862	17.125	23.038	4.103	10.104	515.597
ZEBERIO	Nerbioi-Ibaizabal	317.873	24.192	26.041	15.412	16.789	3.979	3.529	407.815
ZIERBENA	Ezkerraldea	918.500	56.174	63.979	5.420	37.273	5.845	10.440	1.097.631
ZIORTZA-BOLIBAR	Lea-Artibai	72.281	15.691	22.764	2.560	20.636	1.984	11.329	147.245
BIZKAIA GUZTIRA		299.365.849	33.284.358	28.736.411	10.650.953	22.057.002	4.724.172	11.354.442	410.173.187

3.2. Edukiontzi bidezko gaikako bilketako ehuneko handiena duten udalerriak

Atal honetan, 2024ko azken urtean Bizkaiko Lurralde Historikoan hondakinen gaikako bilketan ehunekorik onena izan duten udalerriak biltzen dira.



15 Irudia. Edukiontzietan sartutako gaikako bilketaren ehuneko handiena duten udalerriak.

Mendexa da 2024an edukiontzietan egindako gaikako bilketaren ehuneko onena duten udalerrien zerrendaburua, % 54,80ko tasarekin. Taulak erakusten duen bezala, emaitzarik onenak dituzten udalerriak Lea-Artibai eskualdean daude, batez ere, eta horrek adierazten du jatorrian bereizteko joera positiboa dagoela eremu horretan.


5 Taula: Edukiontzi bidezko gaikako bilketako ehuneko onenak dituzten udalerriak: 2024.urtea

Udalerria	Ehunekoa
Mendexa	%54,80
Amoroto	%52,66
Ziortza-Bolibar	%50,91
Munitibar – Arbatzegi	%49,18
Gizaburuaga	%48,86
Aulesti	%46,83
Lekeitio	%43,74
Arakaldo	%43,01
Ondarroa	%42,96
Markina-Xemein	%42,22

3.3. Zatiki bakoitzean edukiontzi bidezko gaikako bilketako ehuneko onenak dituzten udalerriak biztanleko

Atal honetan, edukiontzietan sartutako gaikako bilketaren zatiki bakoitzerako, 2024ko azken urtean biztanleko bilketa-zifrarik onenak izan dituzten udalerriak biltzen dira.

3.3.1 Papera eta kartoia




16 Irudia. Edukiontzietan sartutako paper-kartoi gaikako bilketa handiena duten udalerriak biztanleko

Hurrengo taulan ikusten da Zamudio dela papera eta kartoiaren zatikiaren edukiontzietako bilketaren liderra, 119,81 kg/biz/urteko tasarekin, gainerako udalerrietan baino handiagoa. Eraitza hori zenbait industrialderen eta udalerrian dagoen parke teknologikoaren presentziari lotuta egon daiteke.

6 Taula: Edukiontzi bidezko bilketako kg/biz/urte tasa onenak dituzten udalerriak papera eta kartoiaren kasuan: 2024.urtea

Udalerria	Kg/biz/urte
Zamudio	119,81
Loiu	64,57
Berriatua	63,90
Lekeitio	53,16
Gamiz - Fika	50,37
Meñaka	50,37
Fruiz	50,37
Laukiz	50,37
Maruri - Jatabe	50,37
Gatika	50,37

3.3.2 Beira




17 Irudia. Edukiontzietan sartutako beiraren gaikako bilketa handiena duten udalerriak biztanleko.

Taula honetan ikusten denez, Sukarrieta da beira-zatikiaren edukiontzietako bilketaren burua, eta urteko 93,02 kg/biz-ko tasa du. Balio handiko udalerri askok urtarokotasun turistiko nabarmena dute, eta horrek eragina izan dezake biztanleria egoiliarrarekiko sorkuntza-ratioa handitzean.

7 Taula: Edukiontzi bidezko bilketako kg/biz/urte tasa onenak dituzten udalerriak beiraren kasuan: 2024.urtea

Udalerria	Kg/biz/urte
Sukarrieta	93,02
Mendexa	80,76
Ibarrangelu	67,25
Murueta	65,04
Bakio	63,94
Ereño	63,07
Ea	58,26
Izurtza	56,37
Kortezubi	56,34
Ziortza-Bolibar	55,66

3.3.3 Tamaina handikoak




18 Irudia. Edukiontzietan sartutako tamaina handiko gaikako bilketa handiena duten udalerriak biztanleko

Taula honetan ikusten denez, Usansolo da tamaina handiko hondakinen edukiontzietako bilketaren buru, 27,99 kg/biz/urteko tasarekin, aztertutako udalerrien artean altuena. Alde horretatik esan behar da 2024an Usansoloko udalerria modu independentean kontabilizatuko dela, Galdakaotik administratiboki banandu ondoren. 2024an, Galdakaon jarduten duen operadore berak eman du hondakin-bilketa zerbitzua, eta azken horren kodearekin kudeatu dira hondakinak. Bi udalek sinatutako hitzarmenaren arabera, eremu bateratuan bildutako hondakin guztien % 29,34 Usansolori esleitzen zaio.

8 Taula: Edukiontzi bidezko bilketako kg/biz/urte tasa onenak dituzten udalerriak tamaina handiko hondakinen kasuan: 2024.urtea

Udalerria	Kg/biz/urte
Usansolo	27,99
Gorliz	19,91
Murueta	19,72
Abanto – Zierbena	18,40
Ortuella	18,06
Muskiz	15,96
Erandio	15,93
Ea	15,00
Alonsotegi	14,94
Barrika	14,75

3.3.4 Ontziak



19 Irudia. Edukiontzietan sartutako ontzien gaikako bilketa handiena duten udalerriak biztanleko

Taula honetan ikus daiteke zerrendaren buruan dagoen udalerria Amoroto dela, eta ontzi arinen zatikiaren bilketa-tasa 56,63 kg/biz/urte dela.

9 Taula: Edukiontzi bidezko bilketako kg/biz/urte tasa onenak dituzten udalerriak ontzi arinen kasuan: 2024.urtea

Udalerria	Kg/biz/urte
Amoroto	56,63
Arratzu	51,30
Etxebarría	51,16
Ziortza - Bolibar	50,45
Berriatua	49,83
Mendata	47,92
Mendexa	47,17
Munitibar	45,05
Ajangiz	43,84
Zamudio	40,95

3.3.5 Berrerabilera



20 Irudia. Biztanleko berrerabilpen gaikako bilketa handiena duten udalerriak.

Taula honetan ikus daitekeenez, Izurtza da berrerabiltzera bideratutako zatikiaren edukiontzietako bilketaren burua, eta tasa 16,04 kg/biz/urte da. Datu hori lotuta egon daiteke, batetik, herritarrek asko parte hartzen dutelako objektu berrerabilgarriak entregatzean, eta, bestetik, horiek berreskuratzeko eta aprobetxatzeko tokiko sistema eraginkorrak daudelako.

10 Taula: Edukiontzi bidezko bilketako kg/biz/urte tasa onenak dituzten udalerriak berrerabiltzeko hondakinen kasuan: 2024.urtea

Udalerria	Kg/biz/urte
Izurtza	16,04
Barrika	10,13
Arakaldo	10,04
Gizaburuaga	8,98
Ubide	8,85
Sukarrieta	7,96
Usansolo	7,78
Lemoiz	7,67
Arantzazu	7,26
Lekeitio	7,19

3.3.6 Biohondakinak



21 Irudia. Edukiontzietan sartutako biohondakin gaikako bilketa handiena duten udalerriak biztanleko.

Taula honetan ikusten denez, Aulesti, Mendexa, Munitibar, Amoroto eta Gizaburuaga dira biohondakinen zatiki edukiontzietan gehien biltzen diren udalerriak, urteko 73,15 kg/biz-ko tasarekin. Lea-Artibai eskualdeko udalek biohondakinen gaikako bilketaren aldeko joera positiboa sendotu dute, aurreko urteetan bezala.

11 Taula: Edukiontzi bidezko bilketako kg/biz/urte tasa onenak dituzten udalerriak biohondakinen kasuan: 2024.urtea


Udalerria	Kg/biz/urte
Aulesti	73,15
Mendexa	73,15
Munitibar	73,15
Amoroto	73,15
Gizaburuaga	73,15
Berriatua	54,46
Etxebarria	51,59
Zamudio	45,40
Ondarroa	38,38
Markina - Xemein	35,52

Aipatzekoa da biohondakinen bilketa tasan balio bera aurkezten duten udalerrien arrazoiak, hondakin horren kudeaketa modu mankomunatuan egitean dagoela.

3.4 Azken urtean gaikako bilketako zatiki bakoitzean eboluzio handiena izandako udalerriak

Atal honetan, edukiontzietan sartutako gaikako bilketaren zatiki bakoitzaren bilakaera aztertzen da, Bizkaiko Lurralde Historikoan 2023 eta 2024 urteen artean aldaketa gehien izan dituzten 10 udalerrien ranking-a barne hartuta.

3.4.1 Papera eta kartoia




22 Irudia. Paper-kartoiaren bilakaera handiena izan duten udalerriak.

Hurrengo taulan ikusten denez, Uribe-Butroi eskualdeko udalerriak zerrendaren buruan daude 2024an, eta % 121,45eko igoera izan du paperaren eta kartoiaren zatikiaren bilketak, 2023koarekin alderatuta.

12 Taula: Edukiontzi bidezko bilketan hazkunde handiena izandako udalerriak papera eta kartoiaren kasuan (kg/biz/urte)

Udalerria	2023ko bilketa kg/biz	2024ko bilketa kg/biz	Hazkundera 23-24
Arrieta	22,74	50,37	%121,45
Laukiz	22,74	50,37	%121,45
Maruri – Jatabe	22,74	50,37	%121,45
Gamiz – Fika	22,74	50,37	%121,45
Fruiz	22,74	50,37	%121,45
Gatika	22,74	50,37	%121,45
Meñaka	22,74	50,37	%121,45
Arrankudiaga	24,20	47,44	%96,00
Muskiz	12,68	19,76	%55,85
Arakaldo	19,54	22,94	%48,29

3.4.2 Beira




23 Irudia. Beiran bilakaera handiena izan duten udalerriak.

Hurrengo taulan ikus daitekeenez, Arrieta da 2024ko zerrendan lehen postuan dagoen udalerria, eta beiraren zatiki bilketak %59,38ko igoera izan du 2023ko datuekin alderatuta.

13 Taula: Edukiontzi bidezko bilketan hazkunde handiena izandako udalerriak beiraren kasuan (kg/biz/urte).

Udalerria	2023ko bilketa kg/biz	2024ko bilketa kg/biz	Hazkuntza 23-24
Arrieta	21,46	34,21	%59,38
Sondika	20,81	32,59	%56,62
Bedia	13,75	21,02	%52,79
Izurtza	39,67	56,37	%42,11
Muxika	22,08	31,02	%40,47
Arrankudiaga	22,47	31,27	%39,14
Errigoiti	18,36	24,87	%35,52
Mendata	36,04	47,28	%31,19
Urduliz	23,83	30,60	%28,41
Mallabia	26,51	33,26	%25,49

3.4.3 Tamaina handikoak




24 Irudia. Tamaina handikoetan bilakaera handiena izan duten udalerriak.

Taulan islatutako datuen arabera, Mundaka da 2024ko sailkapenaren buru, eta bildutako bolumen handiko hondakinen kantitatea % 348,91 hazi da, aurreko ekitaldiarekin (2023) alderatuta.

14 Taula: Edukiontzi bidezko bilketan hazkunde handiena izandako udalerriak tamaina handiko hondakinen kasuan (kg/biz/urte).

Udalerria	2023ko bilketa kg/biz	2024ko bilketa kg/biz	Hazkundera 23-24
Mundaka	2,14	9,59	%348,91
Ispaster	1,26	5,45	%333,01
Balmaseda	3,01	11,79	%291,93
Sukarrieta	1,96	4,43	%126,32
Murueta	9,41	19,72	%109,58
Bakio	7,13	13,33	%86,96
Plentzia	3,11	4,67	%50,18
Gernika – Lumo	7,53	11,11	%47,56
Urduliz	3,33	4,75	%42,43
Zeberio	10,33	14,26	%37,98

3.4.4 Ontziak



25 Irudia. Ontzi arinetan bilakaera handiena izan duten udalerriak.

Taula honetan aurkeztutako datuetatik ondorioztatzen da Lanestosa dela zerrendako buru 2024an, eta % 100,09ko igoera erregistratu dela ontzi arinen zatikiaren bilketan, 2023koarekin alderatuta. Alde horretatik, Lanestosako udalerriak 2023an lau edukiontzi izatetik 2024an bost izatera pasatu dela esan behar da.

15 Taula: Edukiontzi bidezko bilketan hazkunde handiena izandako udalerriak ontzi arinen kasuan (kg/biz/urte).

Udalerria	2023ko bilketa kg/biz	2024ko bilketa kg/biz	Hazkundera 23-24
